



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Enpresa martxan jartzeko beharrezkoak izango diren baliabideak honako hauek izango dira:

Lehenik eta behin, ezinbesteko da lokal bat edukitzea. Hasiara batean hau alokatu egingo dugu, baina irabaziak lortzen joaten garen heinean, gure lokal propioa eskuratzen edo erosten saiatuko gara, noski, azken finean segurtasun bat suposatzen duelako. Lokal hau beharrezkoa izango dugu ofizina gisa erabiltzeko, hau da, zerbitzuen jasangarritasuna gure irizpideen arabera bertan aztertu eta baloratuko ditugu. Lokalari dagokionez, esan beharrik ez dago honek suposatzen dituen beste kostu guztiak ere baliabide garrantzitsuak direla, bertako materiala esate baterako.

Bigarrenik, gure helburu nagusia ingurumenarekiko jasangarriak diren zerbitzuak eskaintzea denez, horretarako erabilia izango den baliabide nagusia web orri dat da. Honetan, jada aipatutako adituek egindako balorazioak azalduko dira, bezeroek ingurumenarekiko jasangarriak diren erreserbak egin ditzaten eta haietaz goza dezaten modu arduratsu batean.

Azkenik, enpresa aurrera eraman ahal izateko, ingurumenaren zainketan adituak diren langileak beharko ditugu. Web orrian ikusgai egongo diren balorazioak argitaratu ahal izateko, beharrezkoa da ingurumenarekiko jasangarriak diren irizpideak argi dituzten adituak kontratatzea, eskaini nahi ditugun zerbitzu guneei buruzko balorazio bat egiteko.